

Teknologien erabilera udaletako parte-hartzea sustatzeko

BakalHau

<http://bakalhau.info>



Edukien aurkibidea

Teknologien erabilera udaletako parte-hartzea sustatzeko.....	1
Gardentasuna.....	4
Webgunea eta informazio kanalak.....	4
OpenData.....	4
Parte-hartzea.....	5
Webgunea eta parte-hartze kanalak.....	5
Parte-hartze tresna proaktibo eta erreaktibo.....	5
Elkarrekintza.....	6
Ezagutza kolektiborako wikia.....	6
Sormenerako eta elkarrekintzarako sare soziala.....	6
p2p laguntza sarea.....	7
Autonomia.....	8
Pertsonak.....	8
Edukiak.....	8
Teknika.....	8
Tresnak.....	8
Lengoiak.....	9
Azpiegitura.....	9

Gertuko politika eta kudeaketan ere garrantzitsua izango da teknologiaren erabilera herritarren benetako parte-hartzea sustatu eta kanalizatzeko. Plano fisikoak duen garrantzia ahaztu gabe, teknologia berriek eta batez ere Internetek parte-hartzea sustatzeko bide berriak jorratzeko aukerak ematen ditu. Txosten honetan garrantzitsuak izan daitezkeen puntuak zehazten saiatu gara, gehiegi zehaztu gabe bada ere.

Hiru parametro eta behar batean oinarrituta egin behar diren prozesuak dira:

- **Gardentasuna:** hartzen diren erabaki politikoak eta udalaren informazioa era argian zabaldu, komunikatu eta eskuragarri jarri behar da, herritarrek fiskalizatzeko aukera izan dezaten.
- **Parte-hartzea:** udalak hartutako erabakietan era erreaktibo eta proaktiboan parte-hartzeko aukera eman. Horretarako beharrezko diren kanalen bidez udalaren ekimen edo erabakiak salatzeko edota egindako proposamenetan ekarpenak egiteko aukera eman.
- **Elkarrekintza:** herritarrekin batera, baina era ez blokeatzailean, baizik eta ahalduntze prozesuen bidez, herritarrek beraien artean eta udalarekin dinamika propioak garatzeko aukera. Horretarako udalak baliabideak eskaini behar ditu, eta bere jarrera ez blokeatzailea izan beharko da, herritarrek sortzen duten hori onartuz.

Prozesu hauetan guztietan sortzen diren ekarpenek eragina izan beharko lukete plano fisikoan ere. Horietako batzuek onespena baino ez dute behar izango eta beste batzuek hori ere ez, herritarren autoeraketa eta sormenaren iturri bezala ulertu beharko baitira. Elkarrekintza prozesu bidez sortzen denak adibidez, kasu gutxitan jaso beharko luke onespena ere, hori baita elkarrekintza prozesuen izaera. Udala eta herritarrak maila berean kokatzea alegia.

Hauekin batera garrantzitsua den behar bat ere badago, hori **autonomia** da, hainbat mailatan aplikatu daitekeena. Kasu honetan atal teknologikoan arreta jarriko badugu ere, autonomia sozialaren oinarrietako bat dela ere uste dugu. Aurreko parametroetan abiatutako prozesuak abiatzeko garaian autonomia hori oso garrantzitsua da. Horregatik azpiegiturak, erabiltzen diren lengoaiak eta tresnak zentzu honetan garatu beharko dira.

Autonomiak ez du isolamendua esan nahi, eta autonomia prozesuak lantzean akats handia litzateke hala dela pentsatzea. Horregatik, autonomiaz hitz egiten dugunean, elkarlanean oinarritutako autonomiaz ari gara. Bakoitzak bere azpiegitura, lengoaiak, tresnak erabili behar direnean, autonomiatik beste batzuekin lotzeko aukera emango digutenak aukeratuz.

Autonomia, tresnak modu librean erabiltzeko gaitasuna ere bada, eta herritar guztiek dute parte-hartze tresnak erabiltzen jakiteko eskubidea. Eta, tresna informatikoez ari bagara, herritarrek informatikan eta interneten ahaldun izateko eskubidea dute, horretarako udalen egiteko bat izango delarik herritarren formazio eta ahalduntzea. Herritarrez gain, kontuan izan beharko da udal langileen ahalduntze eta formazioa, herriaren eta udalaren arteko interakzioa posible egiteaz gain, eraginkorra izan dadin.

Gardentasuna

Gardentasuna lantzeko proposamen zehatz batzuk:

Webgunea eta informazio kanalak

Gardentasuna ziurtatu ahal izateko, udaletako webguneek udalak egindako lana erakutsi behar du. Horretarako beharrezkoa da webguneak informazio hori era argi batean ematea eta eguneratua izatea. Horrekin batera ohiko eragiketa gehienak bertatik egin ahal izateko bideak ere jarri beharko ditu martxan, eskatu behar diren agiriak, informazio kontsultak, tramite administratiboak eta bestelakoak egiteko aukera emanez.

Udalaren lana webgunearen bidez herritarrei hedatzeaz gain, webguneari **blog** bat eranstea interesgarria izan liteke. Izan ere, horrela era erraz batean udalaren arlo ezberdinetako lana jarraitu ahal izango lukete herritarrek.

Horrekin lotuta, berebiziko garrantzia dauka udalean egiten diren pleno eta jarduera irekien informazioa eskuragarri jartzea. Hartu diren erabakiak, izandako eztabaidak, udaleko partaideen jarrera fiskalizatu ahal izateko, irekiak diren jarduera guztien **bideo edo audio emisio zuzenekoak eta diferitua** egitea garrantzitsua da. Jende askorentzat era bakarra izango baita udalaren jardueraren berri izateko, askotan udalean egiten diren jarduera hauetara guztietara joateko aukerarik ez baitu izaten herritarrek.

Informazio kanal gehigarri gisa **gaikako buletin elektronikoak**, posta elektronikoko bidez informazioa jasotzeko; **SMS abisuak** jasotzeko aukera, batez ere informazio garrantzitsuak, oharrak etab. jasotzeko bide bezala; **Sare sozialetako profilak**, webgune eta blogetako informazio kanal horietan ere jasotzeko. Tresna hauek guztiak oso interesgarriak dira, eta jendartearen adin eta arlo ezberdinak informatuta mantentzeko balio dezakete.

OpenData

Datu publiko guztiak, estatistikoak, erabakiak, demografikoak... libre eta formatu estandarretan herritarren esku utzi behar dira. Ez bakarrik herritarrek kontsultatu ahal izateko, baizik eta datu horiekin ere gauzak garatu ahal izateko: informeak, lan historikoak, etorkizunera begirako azterketak, etab. Modu berean, informazio hori erabiliz sortutako lanek herritarrentzat eskuragarri izan beharko dute.

Horretarako ezinbestekoa da lizentzia libreen¹ erabilera eta formatu estandar egokien erabilera. Bi gai hauek Autonomia atalean jorratuko dira sakonago. Adibide bat ematearren, lizentzietan Creative Commons lizentzia sorta dugu eta formatu estandar interesgarrien kasuan RDFa, adibidez.

Aldi berean, **udalaren esku dauden laguntza eta diru laguntza ezberdinetan datu libre eta estandarizatuen aldeko jarrera** ere erakutsi beharko luke laguntzak emateko garaian. Kontutan hartuta bertan sortzen dena herritarren esku utziko dela zerbitzu publiko izaera beteaz. Gertuko adibide bat: <http://opendata.euskadi.net>

Parte-hartzea

Parte-hartzea lantzeko proposamen zehatz batzuk:

Webgunea eta parte-hartze kanalak

Webgunean beharrezkoa da **parte-hartze kanalak ezartzea**. Aurretik aipatutako blogetan gai konkretuen inguruan iruzkinak uzteko aukera, inkesta sistemak, eta abar, parte-hartzea sustatzeko bideak izan daitezke. Egoera bakoitzak azterketa berezi bat beharko du, eta parte-hartzea posible egiteko prozesuak definitu beharko dira, baina landu beharreko bideak dira.

Horretaz gain, parte-hartzea bilatzen duten hainbat parte-hartze kanal ere ireki beharko liriateke, beti ere kasuan kasuko azterketa bat egin ondoren. **Sare sozialetako profilak eta orriak** sortzea interesgarria izan daiteke, batez ere Twitter eta Facebook sare sozialetan. Lan horretan, aurretik aipatu dugun maila informatiboaz gain, tresnon erabilpen politika eta helburu batzuk finkatu beharko dira. Horrek esan nahi du tresnak erabili eta jendeari erantzungo dion pertsonak ere izan beharko direla kontutan.

Parte-hartze tresna proaktibo eta erreaktibo

Webgunean txertatuta legoke proiektu independente bat litzateke. **Bere helburua udalaren jarduera era erreaktiboan eta proaktiboan ebaluatzea litzateke.**

Webgune honen atal batek udalak egindako jardueren kontrola eraman beharko du. **Jendeari aukera emanez udalak "gaizki" egindako gauzak markatzeko**. Gaizki dauden gauza horiek detektatu, mapa batean kokatu, iritzia eman eta udalaren erantzuna jasotzeko bideak zehaztu. Atal erreaktiboan litzateke hau beraz. Auzo arazoak, kaleetako egoera kaxkarra, zerbitzu falta edo akatsak... adierazteko gunea beharko luke izan eta noski udalaren partetik erantzun zuzena ematea beharrezkoa izango da.

Beste atala proaktiboan litzateke, **udalak egin behar dituen edo herritarrek beraiek egin ditzaketen proposamenak jasotzeko gunea**. Udalak zer bait egin behar duenean bertan argitaratu eta herritarren ideiak jaso ditzake edota herritarren interesgarri ikusita sor daitezken proiektuak proposatzeko erabili daiteke.

Proiektu honetan garrantzitsua da **tresna teknologikoez gain plano fisikoan eta ere kexu eta proposamenak jasotzeko bideak ezartzea**. Udalaren partetik konpromiso bat egon beharko luke kexu eta proposamen horiek ondoren digitalizatzeko. Digitalki parte-hartzen ez duten pertsonak ere parte-hartu ahal izateko, kexa eta proposamenak jasotzeko postontzi edo guneak ezarri beharko direlarik.

Elkarrekintza

Ezagutza lantzeko proposamen zehatz batzuk:

Ezagutza kolektiborako wikia

Udalak jarritako baliabide independente bat litzateke. Bere helburua, **herritarrekin batera herriari eta honen historiari buruzko informazioa metatzea wiki baten bidez.**

Wikipediak bezala herri bakoitzak bere ezagutza metatuko lukeen gune bat beharko luke. Atal garrantzitsu bezala ikusten dira kasu hauetan historiarekin lotutako edukiak eta baita turismo, azpiegitura, aisialdia, kultura... Guztiak herritarrek sortutako edukia litzateke, udalak honetan lagundu badezake ere.

Herri bakoitzak horrelako wiki bat sortuko balu, ondoren wiki guztiak batuko lituzkeen proiektu bat ere garatu ahalko litzateke, adibidez <http://www.wikanda.es>

Sormenerako eta elkarrekintzarako sare soziala

Herrian jada dauden **elkarte eta taldeek beraien artean ezagutu eta elkarreragiteko tresnak** jarri behar dira. **Sare sozial hau** ez da ohiko sare sozialen berdina, baizik eta elkarlana sustatzeko pentsatutako sarea da. **Bi helburu** ditu: lehenengoa, jada **sortutako taldeek bere informazioa ezagutarazi eta beraien barne elkarlana lantzeko tresnak izatea**; bigarrena, **interes berberak izan dezaketen eta taldeetan murgilduta dauden pertsonak taldeetan txertatu edo berriak sortzea**. Laburbilduz:

Zure jakintza eta interesekin bat datozen jendea errazago topatu dezakezu. Elkarlanean aritu eta kontaktuan mantendu. Pertsona indibidual bakoitzak tresna honen barnean tresna hauek izango ditu:

- Profila pertsonalizatzeko aukera
- Blog simple bat
- Fitxategi biltegi bat
- Laster-markak gordetzeko tokia
- Wiki antzeko orrialdeak
- Mikroblogging mezuak jartzeko Haria
- Lagun sarea
- Taldeak sortzeko aukera

Zuen taldearen barnean ezagutza partekatu, gorde eta zabaldu dezakezu. Beste pertsona edo talde ezberdinekin elkarlanean haritu eta kontaktuan mantentzeaz gain. Talde bakoitzak, tresna horren barnean honakoak izango ditu:

- Taldea pertsonalizatzeko aukera
- Blog simple bat
- Fitxategi biltegi bat
- Laster-markak gordetzeko tokia
- Wiki antzeko orrialdeak
- Foroa

Tresna honek jada sortuta dauden taldeen elkar komunikatzeko Internetera eraman eta irekitzea du helburu nagusi bezala, adibide bezala <http://zutagu.net> sare soziala dugu.

Tresnak kontutan hartu beharko dugu beste herri batzuetako antzeko sareekin konektatzeko aukera, eta horretarako hartu beharreko erabaki teknikoak. Horrela herrien arteko, taldeen arteko sareen sarea osatzeko beste proiektu bat sor daiteke.

p2p laguntza sarea

Herritarren artean laguntza oharrak bideratzeko tresna independente bat garatzea da proiektu honen izaera. Jendearen artean eta udalarekin batera laguntza sare herritarrak eraikitzen laguntzea. Lana bilatu, beharrak detektatu, denbora bankuak garatu, bertako ekonomia lokala sustatzeko ekimenak aurrera atera. Horiek guztiak tresna honen bidez gauzatzea proposatzen da.

P2p laguntza sarea sortzearekin batera auzolanerako deialdiak egin eta jendea informatu eta kontaktuan jartzeko tresna izan daiteke, horrela auzolan dinamikak potentziazteko aukera ematen delarik.

Aldi berean tresna honek beste herri batzuetan sor daitezkeen era berdineko tresnekin elkar lotzeko aukera teknikoa ere aztertu beharko du, proiektu handiagoetan murgildu ahal izateko. Adibide interesgarri bat <http://beharsarea.net/>.

Autonomia

Aipatu dugu Autonomiaren garrantzia hasieran, atal honetan autonomia eskuratu ahal izateko maila ezberdinak aipatzen dira, teknologiarekin duten uztarketan zentratuz.

Pertsonak

Tresna hauek erabiliko dituzten pertsonak dira garrantzitsuak. Horretarako, alde batetik **formazio prozesuak** martxan jarri beharko dira, telezentroak (Kzgunek) bezalako ekimenen birmoldaketa oso bat proposatuz. Formazio honek jendarteak tresna hauek erabiltzeko formazioa eman beharko luke jendarteko adin guztietako herritarrentzat.

Tresnetan formazioa emateaz gain, jendea **ahalduntzeko prozesuak** ere martxan jarri beharko liriateke. Ez arlo teknikoan bakarrik, baina baita horietan ere. Horretarako gune fisiko eta baliabideak ere egon behar dira jendearen eskutan, horiekin era errazean definituta ez dauden ekimen berriak sustatzeko aukerak sortzeko. Hitzaldiak, jardunaldiak, tailerrak eta horiek beharrezko dituzten baliabideak ahalduntze prozesu horretara bideratu beharko liriateke.

Adibide interesgarri bat honetan Citilab zentrua dugu <http://www.citilab.eu/>

Edukiak

Udaletik sortutako edukiek eta baita diru-laguntzen bidez lagundutakoek libreak izan behar dute. Horretarako beharrezko azterketa ondoren, lizentzia libre bat aplikatzea beharrezkoa da. Horrek garrantzi handia dauka udaletik sortutako edukiak bere zerbitzu publikoa burutzen laguntzen diolako. Ondoren, eduki horiek herritarrei ez ezik, jendarte osoari ere eskuragarri uzten baitzaizkio. Nahi izanez gero, eduki horiek beste proiektu batzuetarako ere berrerabil ahal direlarik. Adibide interesgarria: <http://www.guregipuzkoa.net>

Teknika

Teknikaren alorrean zenbait erabaki oso garrantzitsuak izan daitezke prozesu hauen guztien autonomiari dagokionez. Ez bakarrik autonomiari begira, baizik eta ekonomikoki, sozialki eta denboran irauteko kontutan hartu beharreko erabaki garrantzitsuak dira.

Tresnak

Udaletan erabiltzen diren tresnak software libreanⁱⁱ oinarritutakoak izatea oso garrantzitsua da. Beharbada migrazio oso bat ezinezkoa bada ere, **migrazio prozesuak aztertu eta software libreria sistema eragilea, nabigatzailea, bulegotika tresnak... migratzea garrantzitsua da.**

Onurak arlo askotarikoak dira: ekonomikoak, normalean software librearen inplantazioa soluzio pribatiboak edukitzea baino merkeagoa izan ohi da eta, merkeagoa ez bada ere, bertan egiten den inbertsioa egokitzapen, zerbitzu, moldaketa eta lokalizazioari begirakoak izan daitezke; sozialak: software librearen sustatzearen bidez egiten diren moldaketa guztiak jendarte osoaren onurarako ere badira, eta garapen ekonomiko lokalak ere sustatzen dute.

Beraz, oso garrantzitsua litzateke udaletan software libreria igarotzeko migrazio prozesuak garatzea, adibide interesgarri bat Brasilgo ereduaren delarik.

http://congreso.gulag.org.mx/software_libre.../software-libre-en-la-administracion-publica-brasilena-1.1.pdf

Lengoiak

Bai barne, zein kanpo prozesuetan erabiltzen diren **estandarrak irekiak eta ahal den kasuetan libreak** izan behar dira. Barne dokumentaziorako adibidez .doc formatua .odt formatuaren bidez ordezkatu beharko litzateke.

Web tresnek erabiltzen dituzten estandarrak ere kontutan hartu behar izango dira, tresna ezberdinen artean elkarrekintza posible ahal izateko.

Atal honek zerikusi handia dauka OpenDataekin. Datuei ematen zaien formatuaren arabera, datu horiekin egin ahal izango dena mugatua izango baita. Proiektu interesgarriak: <http://dataportability.org/> , <http://ostatus.org> , <http://www.odata.org/> , <http://www.documentfoundation.org/>

Azpiegitura

Azpiegituran ere autonomia lantzea ere garrantzitsua da. Arlo zailenatariko bada ere maila ezberdinak inplementatu daitezke hau garatu ahal izateko. **Udalek zerbitzari propio batzuk izan beharko lituzkete**. Horietako batzuk **udalaren zerbitzueterako**, webgunea, posta elektronikoa eta sor daitezkeen webguneak bertan izateko, baina horretaz gain **herritarren eta taldeen esku egongo diren zerbitzari publikoak** ere edukitzea interesgarria litzateke.

Atal honetan, azpiegiturari dagokionez Interneteko sarea sarbidea ziurtatzea beharrezkoa da. **Interneteko sarbide unibertsal eta publiko baten apustua** egitea oso garrantzitsua da. Horretarako **udalak Wifi sare publiko zabal bat** garatu beharko luke. Horretaz gain, erabaki interesgarri eta garrantzitsuagoak ere proposatu daitezkeen **herrien arteko sareak eratzeko proiektuak garatuz**. Zentzu honetan proiektu oso interesgarri eta estrategikoa izan daiteke <http://guifi.net> proiektua.

i Lizenzia libreak (Creative Commons):

Creative Commons legislazio eta teknologia berriak erabiliz sormenezko lanak partekatzeko oztopo legalak murriztea helburu duen [irabazteko asmorik gabeko erakundea](#) da.

Creative Commons [2001ean](#) sortu zuen [Lawrence Lessigek](#), [Stanfordeko Unibertsitatean](#) zuzenbide irakasle denak eta [2008.](#) urteko martxora arte erakundeko presidentea zenak.

Creative Commons-en lizentziak [Free Software Foundationen GPL](#) (General Public License) lizentzian oinarrituak daude, baina ez dira softwarearen lizentziaren mota bat. Hauen helburua erabiltzaileari eredu legal bat eskaintzea da, edukien banaketa eta erabilera errazten diotelarik.

Lizenzia ezberdin ugari daude, bakoitzak egitura eta oinarri desberdinak ditularik: egileak bere lana kopiaatzeko aukera emateko duen eskubidea, aldatzekoa, lan eratorriak egiteko eskubidea, publikoki eskaintzea eta baita hainbat murriztapen ere, lanarekin irabazi ekonomikorik ez lortzearena esaterako.

Wikipedia: https://secure.wikimedia.org/wikipedia/eu/wiki/Creative_Commons

ii Software librea:

Software librea ([ingelesez](#), free software), eskuratu ondoren erabili, kopiatu, aztertu, moldatu eta banatu daitekeen [softwarea](#) da. [Internet](#) bidez doan edo beste medio batzuetan banaketa ordainduz eskuratu ahal izaten da. Dena dela, azken hau ez da derrigorrezkoa, eta libre egoera hori mantenduz ere, saldu egin daiteke. Era berean, doako softwarea ([freeware](#)) ere [iturri-kodearekin](#) batera banatzen da batzuetan. Baina freeware ez da software librearen berdina, moldatzeko eta banatzeko aukera eskaintzen ez den kasuetan bederen.

[Softwarea](#) librea dela esan ohi da hurrengo lau eskubide hauek betetzen dituzenean:

- helburua edozein dela ere exekutatu ahal izatea (pribatua, hezkuntza, publikoa, komertziala, eta abar).
- aztertu eta aldatu ahal izatea (horretarako beharrezkoa da kodea eskuratu ahal izatea).
- kopiatu ahal izatea.
- hobetu, eta hobekuntzak horiek publiko egin ahal izatea, komunitatearen onurarako.

Wikipedia: https://secure.wikimedia.org/wikipedia/eu/wiki/Software_libre